



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Bizkaiko neguko errepide plana azaroaren 1ean jarriko da martxan. Edurra kentzeko 68 makina eta 327 pertsona egongo dira guardian, izotzaren eta edurraren aurrean

Bilbon, 2013ko urriaren 11n

Foru Aldundiak datorren azaroaren 1ean jarriko dau martxan Bizkaiko Neguko Errepide Plana. Aurton, Aldundiaren esku dagozan errepideetan 327 pertsona egongo dira beharrea, zaindarien, gidarien eta laguntzaileen artean. Lantalde horrek edurra kentzeko 68 makina eta 9.290 gatz tona eta 200 metro kubiko gatzur izango ditu eskura, Bizkaiko errepideak izotz eta edur barik egon daitezana. Batzar Nagusien aurrean egin dauen agerraldian, Itziar Garamendik, Herri Lan eta Garraioetako diputatuak, iragarri dauenez, neguko plan horren barrikuntza nagusia, gidariek, Bizkaimove web gunetik, eguraldia eta trafikoaren egoera kontsultau ahal izango dabela izango da, www.euskalmet.net eta www.trafikoa.net web gunetara izango dituan esteken bitartez.

Aldundiaren planak hiru zerbitzu maila ezarten ditu errepideetako zirkulazinoan zailtasunak dagozanean, eguraldi txarra dala eta. Lehenengo, Aldundiak lehentasuna emongo deutso lurraldeko errepide ardatz nagusien garbiketeari, A-8ari, Hegoaldeko Saihesbide Metropolitarrari, AP-8ari (Basauri-Ermua), 637 eta 240 errepide nazionaleri eta aireporturako, “superporturako” eta ospitaleetarako sarbideei. Leku horreetan eguneko 24 orduetan eskiniko da zerbitzua, baita domeketan eta jaiegunetan be. Bigarren mailan, eguneko orduetan aktibauta egongo dan operatiboaren bitartez, Avanzada, Bilbo-Mungia edo Bilbo-Balmaseda errepideak egongo dira, adibidez. Eta, hirugarren mailan, aurreko mailatakoak bermatuta dagozanean garbituko diran errepideak sartzen dira. Horreen artean Ballontiko ardatza edo BI-3737 errepidea, Gobela eta Sopela artean, sartu dira, beste batzuen artean.

INFORMAZINO PANELAK A-8AN

Beste alde batetik, Batzordeak Arauz Besteko Proposamen bat onartu dau. Proposamen horretan eskaerea egiten jako Eusko Jaurlaritzari, Aldundiaren bitartez, A-8ko informazino paneletan trafikoaren inguruko informazinoa emon ahal izateko, eta gertakariren bat egon ezkeru aukerako bideen barri emoteko. Ekimenak Euzko Abertzaleak (EAJ-PNV), Socialistas Vascos (PSE-EE) eta proposamena aurkeztu dauen EH Bildu taldeen aldeko botoa jaso dau. PP abstenidu egin da.

EH Bilduren eretziz, oraindino A-8an instalauta dagozan informazino panelek ez dabe aukerako biderik erakusten, istripuak edo arazo meteorologikoak dirala eta errepide horretako trafikoan gertakariren bat egoten danean. Asier Sanzek, talde abertzaleko batzarkideak, adierazo dauenez, holango oharrak sartzea konponbide “erraza” izango litzateke trafikoa hobetzeko eta Hegoaldeko Trenbide Metropolitarraren erabilera indizeak handitzeko. Aurretik be Batzar Nagusiek behin baino gehiagotan eskatu izan dabe gauza bera.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Gainerako taldeek, A-8ko hainbat puntutan banatutako informazio panel horreei buruz eztabaidatu diran proposamenak gogoratu ditue. PP abstenidu egin da, bere eretxiz, talde popularrak aurkeztu eban eta onartu egin zan Arauz Besteko beste Proposamen baten “bardina” dalako. Popularren ustez ekimena berandu heldu da. Jesus Isasi batzarkide popularrak lan saioan onartu dauenez, panel horreek emoten daben informazioan egondako aldaketen lekukoa da. Gertakari baten ostean, “atzo bertan beste bide alternatiboen barri emoten zan”, esan dau.

EAJ-PNV taldeak adierazo dauenez, bilerak eta alkarrizketak egiten ari dira Eusko Jaurlaritzaren eta Aldundiaren artean, informazio hori zelan hobetu ikusteko, baina kontuan izan behar da Foru Aldundiak ez dauela arlo horretako eskumenik. PSE-k be esan dau gaur egun informazio hori “denpora errealean” eguneratzen dala. “Arazoa asko konpondu da”, adierazo dau Joaquín Colmenero batzordekide sozialistak.

NEURRI BARRIAK ERREPIDEAK FINANTZETAKO ETA MANTENTZEKO

Beste alde batetik, batzordeak atzera bota dau EH Bildu taldearen Arauz Besteko beste Proposamen bat. Proposamen horrek “tarifikazio politika orekatu barria” ezartea eskatzen eban Bizkaiko errepideetan, Interbiak foru soziedadearen autosufizientzia ekonomikoa bermatzeko. Ekimen horren bitartez, koalizio abertzaleak Aldundiaren konpromisoa bilatzen eban, hilebete biko epean, “alternatiba desbardinak” planteauko dituan “txosten ekonomiko-finantziarioa” aurkeztu daian, Bizkaiko errepideak egiteko eta kudeatzeko ardurea daukan soziedade horri egiten jakon milioi askoko ekarpena murrizteko. Errepide horreen artean dagoz Hegoaldeko Saihesbide Metropolitarra edo A-8aren Bizkaiko zatia, adibidez. EAJ-PNV eta PP taldeek kontrako botoa emon dabe, eta PSE-EE abstenidu egin da.

Koalizio abertzalearen berbetan, Interbiak Bizkaian erakunde publiko batek pairatzen dauen “zorrik altuena” dauka, “940 milioi euro baino gehiago”, eta zor horrek gora egingo dau etorkizunean, batez be “Supersurra” oso gitxi erabilten dalako eta, beraz, bide-sariakaz lortutakoa oso gitxi dalako. EH Bilduk uste dau ezinbestekoa dala “Interbiaken autosufizientzia ekonomikoa bermatzeko eta herrialde barruan emoten diran diskriminazio egoerei aurre egiteko, tarifikazio politika orekatu barria ezartea Bizkaian”. Horren adibide moduan, EH Bilduko Gobernuak Gipuzkoan egin dauen eredia jarri dau.

PP taldeak, orain Interbiak “kargatzeko” asmoa leporatu deutso koalizio abertzaleari, 2003. urtean Errepide Planean aurreikusitako eredia onartuz soziedade hori sortzea erabagi ebenean. Aldi berean, talde politiko horrek Gipuzkoan apliketan dauen politika kritikau dau, tarifa “leoninoak” jarten ditualako eta beste lurralde batzuetako gidarientzat “baztergarria” eta “bidebakoa” dan eredia bultzatzen dauelako.

PSE taldea abstenidu egin da bozketan, eta koalizio abertzaleagaz bat etorri da, Interbiak eta Bizkaia osoak errepideen finantzaketagaz arazo bat daukiela esatean. Hori dala eta, sozialistek “organo koordinatzailea” sortzeko planteamendua egin dabe, “bazterkeria” eta lurraldeen arteko “burrukak” saihesteko. Beharrezkoa balitz, sozialistak Lurralde Historikoen Legea (LHL) aldatzearen aldekoak dira, “oreka bilatzeko”, esan dau Joaquín Colmenerok.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

EAJ-PNV taldeak gogoratu dauenez, Interbiakerek beste eskumen batzuk be baditu, Hegoaldeko Saihesbide Metropolitarragaz gain, eta soziedade horren lanari esker, Bizkaia hobeto kohesionauta dago gaur egun. Bilduk, beste finantzaketa alternatiba batzuk bilatzeko eskatu dauen txostenari jagokonez, jeltzaleen eretxiz hori ez da beharrezkoa, hiru alternatiba baino ez dagozalako: Interbiak soziedadera egiten diran kapital ekarpenak egokitzea, bide-sari gehiago ezartea edo gaur egun dagozanak garestitzea. EAJ-PNV-k gonbidapena egin deutso EH Bilduri, bere jarrera argitu daian. “Argi eta garbi esan behar dabe euren politika, ez dagozan lekuetan bide-sariak jartea eta gaur egun dagozanak garestitzea dala”, erantzun dau Nerea Ahedo batzordekide jeltzaleak. Batzordekide horrek Interbiak soziedadearen Ekonomia eta Finantza Plana defendidu dau. Plan horretan lehendik be planteetan zan maileguak, bide-sarietatik lortutako diru-sarrerren eta kapital hedapenen bitartez itzuliko zirala.

BIZKAIBUSEKO LEHIAKETEAK

Irailaren 13an erregistrautako beste ekimen baten bidez, EH Bilduk eskaerea egiten eutsan Aldundiari, Bizkaibusen berrantolaketari begira aurkeztutako lizitazio prozedura eta pleguak alde batera ixteko (eskaintzak aurkezteko epea joan dan astean amaitu zan), eta “gizarte eragileakaz, langileen ordezkariakaz, eragile politikoakaz eta Udalakaz batera abiautako alkarrizketa eta parte hartze prozesu batean oinarritutako” proiektua aurkezteko, Bizkaibuseko langileen lan baldintzen inguruan eta herrietan eskini beharreko zerbitzuaren gainean adostasun zabala lortzeko. Une honetan, kontratazino mahaia, lurraldea banatu dan bost guneetakoren bat lortzeko aurkeztu diran 17 eskaintzak aztertzen ari da. Proposamena ez da onartu, aldeko 5 boto (Bildu eta PSE), kontrako 6 boto (EAJ-PNV) eta abstentzino 2 (PP) jaso ditualako.

EAJ-PNV taldearen eretxiz “legezko errazoiak” dagoz Bizkaibuseko zerbitzuaren berrantolaketa prozesua ez geratzeko, eta ezeztu egin dau prozesu horretan partaidetzarik egon ez danik. Prozesu “luzean”, udalek, alkarteek, batzarretako taldeek, erakundeek, enpresek... denporea euki dabe iradokizunak edo alegazinoak aurkezteko. Jon Larrea batzordekide jeltzaleak ehun baino gehiago aurkeztu dirala esan dau. Horreetako “asko” baldintzen pleguan sartu dirala adierazo dau.

Gai horregaz erlazonauta, oposizinoko taldeak bat etorri dira prozedura hasieratik “txarto planteauta” egon dala azpimarratzean, partaidetzea itota egoalako eta, azkenean, oso alegazino gitxi onartu diralako. Horrek “arazoak eta gatazkak” eragin ditu langileakaz. PSE eta Bildu taldeak eztabaidea barriro zabaltzearen alde agertu dira, “danon” parte hartzeagaz.

Eztabaidarako eta alegazinoak aurkezteko denporea faltau izan dala onartu arren, PP taldeak bozketan abstenitzea erabagi dau, eta hori erabagigarria izan da EH Bildu taldeak aurkeztutako proposamenak aurrera ez egiteko. Popularren ustez, une honetan prozesua geratu ezkerro, arriskuan jarriko litzatekez lanpostuak eta garraio publiko zerbitzua, eta gehiago oraindino kontuan izaten bada “langileakaz akordioa lortu dala dagoaneko”, esan dau Jesús Isasik.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

El dispositivo invernal de Bizkaia se activará el 1 de noviembre, con 68 quitanieves y 327 personas en guardia ante el hielo y la nieve

Bilbao, a 11 de octubre de 2013

La Diputación activará el Plan de Vialidad Invernal en Bizkaia el próximo 1 de noviembre. Este año, las carreteras forales dispondrán de un efectivo humano de 327 personas entre vigilantes, chóferes y acompañantes. Esta plantilla se servirá de 68 máquinas quitanieves y 9.290 toneadas de sal y 200 metros cúbicos de salmuera para mantener los viales de Bizkaia en perfectas condiciones, limpias de hielo y nieve. Según ha anunciado la diputada de Obras Públicas y Transportes, Itziar Garamendi, en una comparecencia a petición del PP en las Juntas Generales, la principal novedad en este plan invernal será que los conductores podrán consultar desde la página web de Bizkaimove el tiempo y el estado del tráfico, a través de enlaces a www.euskalmet.net y www.trafikoa.net.

El plan de la Diputación establece tres niveles de servicio cuando la circulación por las carreteras se complique por el mal tiempo. En primer lugar, la Diputación priorizará la limpieza de los grandes ejes viarios del territorio como la A-8, la Variante Sur Metropolitana (VSM), la AP-8 (Basauri-Ermua), las nacionales 637 y 240, y los accesos al aeropuerto, al "superpuerto" y a los centros hospitalarios. Aquí la atención será de 24 horas del día, incluso en domingos y festivos. En un segundo nivel, con un operativo activo las horas diurnas, se incluyen carreteras como La Avanzada, la Bilbao-Mungia o la Bilbao-Balmaseda. Y, en un tercer nivel, aparecen viales que se atenderán cuando estén garantizados los dos niveles anteriores. En ellos, se han incluido el eje del Ballonti o la BI-3737 entre Gobela y Sopelana, entre otros.

PANELES INFORMATIVOS EN LA A-8

Por otro lado, la Comisión ha aprobado una Proposición No de Norma en la que se pide al Gobierno Vasco, a través de la Diputación, que los paneles informativos de la A-8 incluyan ya información referente al tráfico y a las alternativas viarias en caso de que se produzca alguna incidencia en esta vía. La iniciativa ha contado con el apoyo de Nacionalistas Vascos (PNV), Socialistas Vascos (PSE-EE) y del grupo proponente EH Bildu. El PP se ha abstenido.

EH Bildu cree que todavía los paneles informativos instalados en la A-8 siguen sin mostrar otras alternativas viarias cada vez que existe una incidencia de tráfico producida por accidentes o inclemencias meteorológicas. Asier Sanz, juntero de la formación soberanista, ha señalado que la incorporación de este tipo de avisos, solicitada en anteriores ocasiones por las Juntas Generales, sería una solución "fácil" para mejorar el tráfico e incrementar los índices de utilización de la VSM.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

El resto de grupos ha hecho un repaso de las distintas proposiciones debatidas en la cámara vizcaína referidas a estos dispositivos informativos repartidos por distintos puntos de la A-8. El PP ha justificado su abstención por ser “un calco” a otra Proposición No de Norma planteada por este grupo juntero, que fue aprobada por el parlamento vizcaíno. Para los populares la iniciativa llega tarde. El apoderado popular Jesus Isasi ha reconocido en la sesión que él mismo ha sido testigo de los cambios que se han producido en la información que transmiten estos paneles. Tras un incidente, “ayer se marcaban las alternativas viarias”, ha dicho.

Por su parte, el PNV ha asegurado que se mantienen reuniones y conversaciones entre el Gobierno Vasco y la Diputación para ver cómo se puede mejorar esta información, pero teniendo en cuenta que la Institución foral no es competente en la materia. El PSE ha coincidido en que, en la actualidad, esta información se actualiza en “tiempo real”. “Se ha solucionado bastante”, ha confirmado Joaquín Colmenero, apoderado socialista.

NUEVAS MEDIDAS PARA FINANCIAR Y MANTENER LAS CARRETERAS

Por contra, la comisión ha rechazado una Proposición No de Norma del grupo juntero EH Bildu que buscaba una “nueva política de tarificación equilibrada” en las carreteras de Bizkaia que garantizase la autosuficiencia económica de la sociedad foral Interbiak. Con esta iniciativa, la coalición abertzale demandaba un compromiso a la Institución foral para que presentase en el plazo de dos meses un “informe económico-financiero” que planteara “medidas y distintas alternativas” para reducir la aportación millonaria a esta sociedad encargada de financiar obras o explotar algunas carreteras de Bizkaia como la VSM o el tramo vizcaíno de la A-8. PNV y PP han votado en contra y PSE-EE se ha abstenido.

Según la coalición abertzale, Interbiak soporta la “mayor deuda” de una institución pública en Bizkaia, “más de 940 millones de euros”; una deuda que irá creciendo debido principalmente a los bajos índices de utilización de la “Supersur” y, en consecuencia, a la merma de ingresos obtenidos vía peaje. EH Bildu considera necesario, por ello, establecer una nueva política de tarificación para garantizar la autosuficiencia económica de Interbiak y “hacer frente a las situaciones de discriminación que se producen dentro del territorio”. Han puesto como ejemplo el modelo que ha desarrollado el Gobierno de EH Bildu en Gipuzkoa.

El PP ha reprochado a la coalición abertzale que pretenda ahora “cargarse” Interbiak cuando en el año 2003 aprobaron la creación de esta sociedad con la aceptación del modelo previsto en el Plan de Carreteras, al tiempo que ha criticado la política que esta formación política aplica en Gipuzkoa con tarifas “leoninas” y un modelo “discriminatorio” e “injusto” para los conductores de otros territorios.

Por su parte, el PSE-EE, que se ha abstenido en la votación, ha coincidido con la coalición abertzale en que Interbiak y Bizkaia tienen un problema con la financiación de las carreteras. Por eso, los socialistas han planteado la creación de un “órgano coordinador” para evitar la “discriminación” y los “enfrentamientos” entre territorios. Si fuera necesario, los socialistas son partidarios de modificar la Ley de Territorios Históricos (LTH) para “buscar el equilibrio”, ha mantenido Joaquín Colmenero.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

El PNV ha recordado que Interbiak es una sociedad que tiene otras competencias más allá de la VSM y que gracias a su trabajo, Bizkaia está hoy mejor cohesionada. En cuanto a la petición de un informe por parte de Bildu para buscar otras alternativas de financiación, los jeltzales creen que no es necesario, ya que sólo existen tres alternativas para cuadrar las cuentas: adecuar las aportaciones de capital de Interbiak, instaurar más peajes o subir los existentes. El PNV ha invitado a EH Bildu a que aclare públicamente su posición en Bizkaia. “Digan claro que su política es poner peajes donde no los hay y subir los que existen”, ha respondido la jeltzale Nerea Ahedo, quien ha defendido el Plan Económico Financiero de Interbiak, en el que se ya planteaba devolver los préstamos por medio de ingresos obtenidos vía peaje y por ampliaciones de capital.

CONCURSO DE BIZKAIBUS

A través de otra iniciativa registrada el 13 de septiembre, EH Bildu pretendía que la Diputación Foral abandonase el procedimiento de licitación y los pliegos presentados para la reordenación de Bizkaibus (el plazo de presentación de ofertas terminó la semana pasada), y presentara un proyecto “fundamentado en el debate y la participación de los agentes sociales, representantes de los trabajadores y trabajadoras, agentes políticos y ayuntamientos, en aras a la consecución de un amplio consenso”, en torno a las condiciones laborales de Bizkaibus y al futuro servicio. En estos momentos, la mesa de contratación está estudiando las 17 ofertas presentadas para hacerse con una de las cinco zonas en las que se ha dividido el territorio. La proposición ha sido rechazada con 5 votos favorables (Bildu y PSE), 6 votos contrarios (PNV) y 2 abstenciones (PP).

El PNV cree que hay “razones legales” para no paralizar el proceso de reordenación del servicio de Bizkaibus y ha negado que, en el mismo, haya faltado participación. En un proceso que ha considerado “largo”, los ayuntamientos, asociaciones, grupos junteros, instituciones, empresas, han tenido tiempo para aportar sugerencias o presentar alegaciones. El apoderado jeltzale Jon Larrea ha cifrado éstas en más de un centenar. “Muchas” se han incorporado a los pliegos de condiciones, ha asegurado.

En este sentido, los grupos de la oposición han coincidido en destacar que el procedimiento estaba “mal planteado” desde el principio, al estrangularse la participación y que, a la larga, se han aceptado muy pocas alegaciones, lo que ha originado “problemas y conflictos” con los trabajadores. Tanto el PSE como Bildu han apostado por abrir de nuevo el debate con la participación de “todos”.

Pese a estar de acuerdo en que ha faltado tiempo para el debate y para la presentación de alegaciones, el PP ha decidido abstenerse en la votación, lo que ha sido decisivo para que la propuesta de EH Bildu no prosperara. Los populares entienden que paralizar el proceso supondría ahora poner en riesgo, tanto los puestos de trabajo como el servicio de transporte público, más si se tiene en cuenta que “ya existe un acuerdo con los trabajadores”, ha sostenido Jesús Isasi.